En todo lo que no especifique esta ordenanza se aplicará el Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido del impuesto sobre Actividades Económicas.

II. KAPITULUA: GUTXIENEKO KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua

Udalerri honetan zergapetutako iharduerетarako zerga honen Tarifetan Foru Diputazio honek ezarri dituen gutxieneko kuotak 1. eranskinean azaltzen diren koefizienteen arabera gehituko dira.

III. KAPITULUA: ZERGA KUOTA

3. artikulua

Zerga honen zerga kuota tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotez osatuko da, horri, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagokion indizea erantsiz.

IV. KAPITULUA: KUDEATZEKO ARAUAK

4. artikulua

1. Zerga honen kudeaketa, kitapen, dirubilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundian delegatu ahal izango dira, Udalbatza osoak zehaztutako termino, edukin eta norainokoetan, horretarako dagokion hitzarmena sinatu beharko delarik eragina izango duen urtea hasi aurretik.

2. Harduko den udal erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

3. Artikulu honetan ezarritakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

AZKEN XEDAPENA

Transkribitutako ordenantza fiskala udal batzarrak onartu du 2023ko azaroaren 15ean eta 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo indargbetzea erabakitzne ez den bitartean aplikatzen jarraituko da.

I. ERANSKINA

Ponderazio koefizientea

CAPÍTULO II: PONDERACIÓN DE CUÓTAS MÍNIMAS

Artículo 2

Las cuotas mínimas fijadas por la Diputación Foral en las Tarifas de este impuesto para las actividades gravadas en este término municipal se incrementarán en los coeficientes que se indican en el Anexo

CAPÍTULO III : CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 3

La cuota tributaria de este impuesto estará formada por las cuotas mínimas que fijen las tarifas, incrementadas del recargo foral en su caso.

CAPÍTULO IV: NORMAS DE GESTIÓN

Artículo 4

1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este impuesto podrán delegarse en la diputación foral de gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el ayuntamiento pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio antes del comienzo del año en que haya de surtir efectos.

2. El acuerdo municipal adoptado se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa

3. No obstante lo dispuesto en el número 1 de este artículo corresponderá en todo caso a la Diputación Foral las facultades en él expresadas por lo que se refiere a las cuotas provinciales y especiales.

DISPOSICIÓN FINAL

La ordenanza fiscal transcrita, ha sido aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 15 de noviembre 2023 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2024, continuandose aplicando en tanto no se acuerde su modificación o derogación en forma reglamentaria.

ANEXO I

Finkatutako gutxieneko kuotak igotzeko koefiziente bakarra: 1,8000

Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzailea

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde historikoko Foru Arauan eta tributuari dagokion Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du, ordenantza honi jarraiki, tarifa aplikagarriak dituen eranskina parte delarik.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua

Lan edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu egitate ezargarria, lizentzi hori jaso edo ez arren, baldin eta lizentzia ematea udal honi badagokio. Erasnkinean zehazten dira.

4. artikulua

Zerga honen pean ez dira egongo udal honi dagokion titularitate dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza udalak betetzen badu.

Salbuetsiak geratuko dira ere eraikuntzen fatxada pintaketa eta mantenuko erretilatze lanak.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordainketatik salbuetsita geratuko dira Estatua, Autonomi Komunitateak, Herrialde Historikoak edo Entitate Lokalak jabeak izan eta egingo luketen edozein eraikuntza, instalazio edo obra, zerga horri lotuak egonik ere, zuzenean errepide, tren, portu, aireportu eta obra hidraulikoetara eta, era berean, herrien eta bertako hondakin uren saneamendura xedatzen direnean, nahiz eta hauen gestioa organismo autonomoek eraman eta inbertsio berriko edo

Coeficiente de ponderación

Coeficiente unico de incremento de las cotas mínimas fijadas: 1,8000

Ordenanza fiscal reguladora del impusto sobre construcciones,instalaciones y obras

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras con arreglo a la presente ordenanza, de la que es parte integrante el anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

Artículo 2

La ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras urbanísticas, se haya obtenido o no dicha licencia, siempre que su expedición corresponda a este ayuntamiento. Concretados en el anexo.

Artículo 4

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

Quedarán exentos los trabajos de pintado de fachadas y retajados de mantenimiento de las edificaciones.

Está exento del pago del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, la realización de cualquier construcción, instalacion y obra de la que sean dueños el estado, las comunidades autónomas, los territorios históricos o las entidades locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidraulicas, saneamiento de poblacioes y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por organismos autonomos, tanto si se trata

kontserbazioko obra izan.

III. SUBJEKTU PASIBOAK
5.artikulua

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta zergen Foru Arau orokorrak 36. artikuluak aipatzen dituen entitateak dira, zergasun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, horiek egiten diren ondasun higiezinaren titularrak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituena izango da eraikuntza, instalazio edo obrarne jabea.

2. Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, beharrezko lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko dira.

Ordezkoak zergadunari exijitu ahal izango dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

6. Artikulua
1. Zergadunaren ordezko subjektu pasibo eritziko zaio dagozkion lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin ditzanari, zergadun bera ez bada.

2. Nolanahi, udal administrazioak zergapekoaren ordezkoari exijitu ahal izango dio zergapeko izaera duen pertsonal edo entitatearen identitatea eta helbidea.

IV. OINARRI EZARGARRIA
7. artikulua
1. Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak ezartzen du zergaren oinarri ezargarria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

2. Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio

de obras de inversión nueva como de conservación.

III. SUJETOS PASIVOS
Artículo 5

1. Son sujetos pasivos de este impuestoa titulo de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 36 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquella.

A los efectos previstos en el parrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

2. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivo sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

Artíulo 6
1. Tienen la consideración de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones y obras, si no fueran los propios contribuyentes.

2. En todo caso, la Administración Municipal podrá exigir al sustituto del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostente la condición de contribuyente.

IV. BASE IMPONIBLE
Artículo 7
1. La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de la ejecución material de aquella.

2. No forman parte de la base imponible el impuesto sobre el vañor añadido y demas

erantsiaren gaineko zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litekeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare prestazioak eta orobar profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsi-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

3. Oinarri ezargarria, udal lizentziarik gabeko eraikuntza instalazio edo obren kasuetan, udal administrazioak ezarritakoa izango da.

V. TRIBUTU KUOTA

8. artikulua

Oinarri ezargarriari eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

Vl. SORTZAPENA

9. artikulua.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

Vll. KUDEAKETA

10. artikulua

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin behineko likidazioa egingo da, oinarri ezargarria doakinek aurkezturiko aurrekontuaeran arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua bazen; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal teknikariek, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri ezargarria.

11. artikulua

Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da.

impuestos analogos propios del réimen especial,las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de caracter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalacion u obra, ni tampoco los honorarios profesionales el beneficio empresarial del constratista ni cualquier otro concepto que no integre estrictamente, el coste ejecución material.

3. En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la administración municipal.

V. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 8

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el anexo.

Vl. DEVENGO

Artículo 9.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aun cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

Vlll. GESTIÓN

Artículo 10

Cuando se conceda la licencia preceptiva se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

Artículo 11

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto incial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del preuspuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 12

1. A la vista de las construcciones, instalaciones y obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la administración

12. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren egin benetako kostua ikusiz, udal administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den oinarri ezargarria, dagokion behin behineko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa subjetu pasiboari eskatuz edo, hala geratuz gero, itzuliz.

2. Aurreko atalean ezartzen denerako, obra bukatu edo berau behin behinerako hartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitorpena aurkeztuko da udal administrazioak eskuratuko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, dagokion kolegio profesionalak ikustatua, hau egin ahal denean, eta bertan zertfiikatu beharko da obren kostu totala, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industrial onura eta obren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk sartuz.

municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anteior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la administración municipal, acompañada de certificación del director facultatitivo de la obra, visado por el colegio profesional correspondieinte, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

13. artikulua

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun positiboa erabiliko balu, lizentziak, hau espreski emango balu bezala balioko du.

Artículo 13.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

14. artikulua

Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez, era berean zerga urrapen kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabkitzeari dagokionez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikuistakoa izango da aplikagarri.

Artículo 14.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este impuesto regulado en esta ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, sera de aplicación lo previsto en la Norma General Tributaria.

15. artikulua.

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adieraziz, udalak eginiko behin behineko likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko.

Artículo 15

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

16. artikulua

Artículo 16

Lizentzia iraungi ondoren, udalak egindako likidazioa itzuliko du edo berta behera utziko, titularrak berritzea eskatu eta udalak baimenik ematen ez badu.

lX. AZKEN XEDAPENA

Aldatutako ordenantza hau bere erankinarekin batera, 2023ko azaroaren 15ean onertsi zen eta 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela segituko du aldatzea edo derogatzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Eraikin berriak eraikitzea, bizitegiak, industriak edo beste edozein erabilera dutenak, lehendik daudenak handitzeko obrak barne:% 5

Aurrekoaz besteko obra, eraikuntza eta instalazio mota guztiak %3

Ondare eraikia birgaitzeko obrak:% 2

3.000 eurotik beherako aurrekontua duten obra, eraikuntza eta instalazioak: %0

Etxebizitzen barneko obrak, proiektu teknikorik gabe: %0

Etxebizitza eraikinetako fatxadak pintatzea:% 0.

Caducada una licencia el ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el ayuntamiento la autorice.

lX. DISPOSICIÓN FINAL

Esta ordenanza modificada con su anexo fue aprobada el 15 de noviembre de 2023, entrará en vigor el 1 de enero de 2024 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

Construccion de nuevos edificios, sean residenciales, industriales o con cualquier otro uso, incluido las obras de ampliación de los existentes: 5%

Cualquier tipo de obra, construcción e instalacion distinta a la anterior 3%

Obras de rehabilitación del patrimonio edificado: 2%

Obras, construcciones e instalaciones cuyo presupuesto sea inferior a 3.000 €: 0%

Obras en interior de viviendas, sin necesidad de proyecto técnico: 0%

Pintado de fachadas de edificios de viviendas: 0%.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeari dagozkien tasen ordenantza arautzailea

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Entitate lokal honek Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde

Ordenanza fiscal reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

Esta Entidad Local, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la prestación de los servicios y la realización de las actividades que se recogen en el anexo, en los términos de la presente Ordenanza, de las que aquellas son parte integrante.

Artículo 2

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito

eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, del eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarzi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri direnxedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

territorial de la Entidad Local.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3

Constituye el hecho imponible la efectiva prestación del servicio o realización de la actividad por la Administración Local, bien porque haya sido instada, bien porque indirectamente haya sido provocada por las acciones u omisiones de los particulares.

III. SUJETO PASIBO

Artículo 4

1. Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que soliciten los servicios o actividades o que resulten beneficiadas o afectadas por aquéllos.

2. Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente:

a) En las tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los ocupantes de viviendas o locales, los propietarios de dichos inmuebles quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

b) En las tasas establecidas por el otorgamiento de las licencias urbanísticas previstas en la normativa sobre el suelo y ordenación urbana, los constructores y contratistas de obras.

Artículo 5

Están obligados al pago de las tasas:

a) En el caso de servicios o actividades ealizados a solicitud de los particulares, quienes lo soliciten.

b) En el caso de servicios o actividades realizados sin haber sido solicitados por los particulares, pero motivados por actuaciones u omisiones de ellos, aquellos a quienes les sean imputables dichas actuaciones u omisiones.

Artículo 6

Junto al sujeto pasivo responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza las personas que en su caso se mencionen en las normas de aplicación de las tarifas.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 7

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen deneko unitate bakoitza da zerga-oinarria, Eranskin honetan jasotzen diren terminoetan.

VI. KUOTA

9. artikulua

Zerga-kuota, eranskinean xedatutakoarekin bat, tarifa bat, horretarako adierazitako kopuru finko bat, aplikatzetik edo bi prozedurak aldiberean aplikatzeagatik sortzen den kopurua izango da.

VII. SORTZAPENA

10. artikulua

Zerbitzua edo jarduera burutzen denean sortzen da tasa.

VIII. KITAPENA ETA DIRU-SARRERA

11. artikulua

Tokiko Administrazioak kontzeptu bakoitzeko dagokion kitapena egingo du, kitatutako kopurua eskudirutan sartuz Eranskinean jasotako ordainarazpen bakoitzaren arau bereziak jarraiki.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honetan arautzen den zerga honen kitapenari, diru-bilketari eta ikuskaketari dagokion guztirako, baita zerga-arauak haustea kalifikatzeko eta kasuan-kasu dagozkion zigorrak zehazteko, aplikagarri izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2023ko azaroaren 15an onartu zen behin betiko, eta 2024eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, aplikatzen jarraituko delarik aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

ERANSKINA

TARIFAK

A) Epigrafea

Zabor Bilketa eta Ezabaketa Zerbitzua

	€/ hiruhilabetean

disposiciones generales de aplicación.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 8

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos contenidos en el Anexo.

VI. CUOTA

Artículo 9

La cuota tributaria consistirá, confome a lo establecido en el anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

VII. DEVENGO

Artículo 10

La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.

VIII. LIQUIDACIÓN E INGRESO

Artículo 11

Por la Administración Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose la cantidad liquidada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

IX. GESTIÓN DE LAS TASAS

Artículo 12

En todo lo relativo a la liquidación recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de **aplicación** lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

X. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, con su Anexo, fue aprobada definitivamente el 15 de noviembre de 2023, y entrará en vigor el 1 de enero de 2024 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación

ANEXO

TARIFAS

Epígrafe A)

Servicio de Recogida y Eliminación de Basuras

	€/Trimestre
Viviendas	25,00

Etxebizitzak	25,00
Merkataritzako lokalak	40,00
Industri-lokalak. Tarifa finkoa	100,00
Altxaldi bakoitzeko	3,00

Locales Comerciales	40,00
Locales Industriales. Tarifa fija	100,00
Por cada levantamiento	3,00

AHO BATEZ ONARTU DIRA

LAUGARRENA.- GALTZAUNDIREKIN 2022 ETA 2023 URTEETAN SINATUTAKO HITZARMENEN ONESPENA

"**HITZARMENA, LIZARTZAKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ARTEKOA**

Lizartzan, 2023ko azaroaren 2an

ELKARTURIK

Alde batetik, IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN, NAN: 72445561T, Lizartzako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Nerea Esnaolak lagunduta.

Eta bestetik, Manex Urruzola Arrate, NAN: 72.484.861Q; Galtzaundi Euskara Taldearen egoitza soziala: Tolosako Nafarroa etorbidea 6; IFK: G-20371456.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Lizartzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrita.

Bigarrenak, Galtzaundi Euskara Taldearen (aurrerantzean Galtzaundi) lehendakari gisa, 2023ko maiatzaren 17ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Lizartzako Udalak eta Galtzaundik bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premiarekin eta helburuekin.

II.- Galtzaundik egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Galtzaundik ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek Lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluaren 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- Bere estatutuekin bat etorriz, Galtzaundiren xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan honela dioela: “Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake”.

VI.- Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dituela, horien artean, Euskararen erabilera sustatzeko udal planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege horren 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera. Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen dizkiela udalei, bai udal zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta aukera, orobat, euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

VII.- 2/2016 Legearen 7.2 artikuluaren arabera, udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

IX.- 2/2016 Legearen 7.5 artikuluaren arabera, toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dutela, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dutela, erakunde publiko eta pribatuekin.

X.-179/2019 Toki Araubidearen Dekretuaren 10. artikuluak dio udalek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatuko dutela beren lurralde-eremuan egiten diren jardueretan. Euskararen erabilera sustatu eta dinamizatuko dutela, herritarrei zuzendutako prestazioetan ez ezik, sustapen-ekintzetan ere. Horretarako, gizarte-jarduerak finantzatzen lagunduko dutela, eta jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatuko dutela, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Udalek neurriak planifikatuko dituztela euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal-eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturan, elkarte-jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzan. Dekretu beraren 37. artikuluak dio udalek beste entitate publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango dituztela, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

XI.- Galtzaundik, bere normalizazio-lanen bidez, ezinbesteko ekarpena egiten diola Lizartzako Udalak euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioan eragiteko onartuta duen plangintzari.

XII.- Bi aldeek, Lizartzako Udalak eta Galtzaundik, berretsi nahi dutela hitzarmen honen bidez, azken urteotan garatzen ari diren lankidetza, aipatutako helburuekin egiten ari diren elkarlanari jarraipena eman, zeregin horretan sakondu eta eraginkortasuna areagotzeko, aintzat harturik lehen aipatutako 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalari ematen dizkion eskumenak eta Galtzaundi Euskara Elkartearen normalizazio-lanen egitasmoa.

XIII.- Galtzaundi irabazi asmorik gabeko elkartea izanik, komenigarria dela egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea, eta, bide batez, bere geroa ziurtatu eta sendotzea.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.
Hitzarmen honen helburua da Lizartzako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen artean lankidetza eremu egonkorra ezartzea, Galtzaundi Euskara Taldeak Lizartzako euskararen normalizazioan, erabileran, aktibazioan zein kudeaketan eragiteko prestatu duen 2022ko eta 2023ko egitasmoa babestu, sustatu eta elkarlanean garatzeko.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

- **ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOA:**

1 EUSKARA TEKNIKARIEN BATZORDEAN PARTE HARTU: (Anoeta, Irura, Ibarra, Tolosa Amsa-Villabona, Zizurkil eta UEMA-Tolosaldeko teknikariak): eskualde ikuspegiko proiektuak landu, eta bertan hartutako erantzukizunekin bete.

2 TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA KOORDINATU ETA GIDATU: eskualdeko hizkuntza politika berritzailea lantzeko foroa koordinatu eta kudeatu, bilerak landu eta bideratu, eta euskalgintzako eragile sozialen ahotsa bermatu bertan.

- **AKTIBAZIOA: E365E MARKOA**

3 OINARRI SOZIALA ZABALDU ETA DINAMIZATU: Lizartzako boluntariotza sustatu, Galtzaundikide berriak egin, Tolosaldeko euskaltzaleen arteko harremanak indartu, eta eskualde arteko elkarlana bideratu, sistematizatu eta soziolinguistikan trebatzeko jarduerak antolatu, euskararen aldeko aktibista sare bat osatu urrats kualitatiboak emateko.

4 EUSKARALDIA 2022ko edizioa gauzatu eta hurrengo edizioraren antolaketarako talde motorra prestatu eta eskualdeko beste herrietako taldeekin koordinatu.

5 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA: ekintza proposamena eta koordinazioa.

6 HEZKUNTZA: Sektore Mahaia (HSM) dinamizatu eta bertan adostu eta taxututako ekimen edo proiektuak koordinatu edota kudeatu.

1 **ALFABETATZE- EUSKALDUNTZEA:**

7 KOORDINAZIO MAHAIA: eskualdeko eskaintza-eskaeraren ikuspegia izateko eta ekintza komunak diseinatzeko elkargunean (Aitzol, AEK, UEMA, Euskara Teknikariak…) parte hartu eta adostutako eginkizunak bete.

8 MINTZALAGUNA: euskararen ahozko erabilera praktikatzeko parte-hartze programa. Eskualdeko beste taldeekin koordinatu, izenemate garaian ekitaldi bateratua antolatu eta partaideen hartu-emana indartzeko ekintza bateratua antolatu. Euskal Herrikoekin lotu.

- **JAKINTZA**

9 IKERKETA: EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA TOLOSALDEAN ikerketa garatu.

10 FORMAKUNTZA: kontzientziatze eta trebatze hitzaldiak, ikastaroak… Herritarrak trebatu eta kontzientziatzea helburua duten ekimenak: adituen proposamenak plazaratu, harreman guneak sortu, iritzi trukean eragin eta gizartea trinkotu.

- **ZEHARKAKOTASUNA: KOMUNITATEA TRINKOTZEA**

11 EUSKARAREN NORMALIZAZIOA helburu antolatzen diren ekimenak bultzatuz, euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko lankidetza eskaini, antolakuntzan parte zuzena izanez edo bitartekaritza zerbitzuak eskainiz.

12 ELKARTEGINTZA landu gizarte mugimenduekin (gazte-mugimenduak, etorkinen taldeak, feminismoa, aniztasun funtzionala...).

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Diru ekarpen zuzena. Proeiktuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau 2023 urtekoa izango da. Hori gauzatzeko 1.012 €

emango dizkio Udalak Galtzaundiri. Horrez gain,udalak 2022. Urteko hitzarmena honekin batera atzerako eraginarekin onartzea erabaki du, eta horri zegokion diru laguntza, beste 1.012 € hain zuzen, Galtzaundiri aurtengo ekarpenarekin batera ematea; izan ere, ekarpen hori egitea eragotzi zuten arazo administratiboak egon ziren 2022ko urrian, baina Galtzaundi eta Lizartzako Udalaren arteko elkarrekintzak berdina izaten jarraitu zuen. Arazoa izan zen udala idazkaririk gabe egon zela, eta ezin zela batzarrik ospatu. Guztira 2023. Urtean 2.024 €ko diru laguntza ematea adosten da. Erabaki hau berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpenaren bidez, hartzaileak aurkeztutako zuriketa dokumentuak (hitzarmen honetako 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Laugarrena: Indarraldia.
Hitzarmen honek 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen direnak.
Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.
Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Lizartzako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazioa hau aurkeztu beharko da:

1. Ekintzen memoria: Dirulaguntzen helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatuko da.

2. Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarrera guztien balantzea, erakundeko idazkariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin. Balantze honekin gainfinantziaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.

3. Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Zerrendan, hartzailearen identifikazioa, dokumentu mota, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data zehaztuko dira. Gutxienez, Udalak emandako diru laguntza kopurua gainditzen duten fakturen kopiak aurkeztu beharko dira.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean burutzen direnak bakarrik izango dira.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.
Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko martxoaren 1ean amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.
Dirulaguntzaren ordainketa egin behar da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Dirulaguntza hitzarmenean adostutako diru-ekarpen (3. puntua) osoa eginez jasoko da.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.
Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Lizartzako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalari aitortzen dizkioten eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak…) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
- **Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne, (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharrak, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea.**
- **Ele bietako testuetan euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.**
- Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea.
  Bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da.
  Aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan…, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.
- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

13 Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.

14 Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.

15 Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.

16 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.

17 Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.
Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Lizartzako Udaleko eta Galtzaundiko ordezkariek. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetza bide berriak proposatzea.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.
Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalaugarrena: lan- eta zerga-legeria.
Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienez.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.
Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.
Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hamazazpigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Lizartzako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut."

BOZKETA.- Aho batez onartu da.

Ez dago besterik.

Hori horrela, 2023ko azaroaren 15 ean arratsaldeko 19:30etan bukatu da bilkura. Eta horren fede ematen dut.

Lizartzan, 2023ko azaroaren 16ean.

ALKATEAK FEDE EMATEN DU IDAZKARIAK